

PRENTSA DOSSIERRA

Autokar efiziente eta adimendunen belaunaldi berria

Irizarrek primizia gisa aurkeztzen duen berrikuntza teknologikoa Paccar-DAF Euro6d prepared motor berrien eta ZF transmisio automatizatutakoen gama berriaren integrazioa da, TRAXON izenekoa. Horrela lortu dira autokar iraunkorragoak, kontsumo eta isurpen gutxiagokoak, konektatuak, prediktiboak, fidagarriak, isilak eta Kostu Operatibo Osoaren %6ko murrizketarekin.

Motor berriek ahalik eta erregai (gasolioa edo HVO) kontsumorik txikiena bilatzen dute, isurpenak ahalik eta gehien murrizteko. Era berean, ZF-Traxon transmisio berria kontsumoaren efizientziatik harago doa, gidatze ekonomikoagoa eta errazagoa ahalbidetuko duten funtzio aurreratuekin.

Prestazio berri guztien artetik PreVision GPS izenekoa nabarmentzen da ("Predictive Shifting"); transmisioaren eta GPS sistemaren arteko interkonexioa da, eta gidatze prediktiboko estrategia ahalbidetzen du, martxa aldaketan sekuentzia bidearen topografiara egokituta. Ardatz eragilerako aukera, berriz, egungo irtenbide bera da; halere, 2018aren bukaeran ardatz eragilearen belaunaldi berri bat edukiko da, "direct drive" deiturikoa, eta horrekin marmarrak eta kontsumoa murriztuko dira.

Nobedade horiek kontuan hartuta, Irizar "power on demand" kontzeptuan zentratu da, potentzia soilik zerbitzua eskatzen zaienean kontsumitzen duten sistemetan sakonduta. Motorra hozteko sistemaren portaeraren optimizazioa, direkzio ponpa berria edo aire konprimatuko sistema dira lantzen ari diren hasierako irtenbideak, erregai kontsumoan benetako murrizketa bilatuta.

Motorren belaunaldi berri honek efizientzi estandar berriak markatuko ditu, eta kontsumoa %6 baino gehiago hobetuko du egungo kate zinematikoekiko eta, ondorioz, CO2 isurpenak murriztuko ditu.

Belaunaldi honen berrikuntzak

DAF motor berrien eta ZF-Traxon transmisio berriaren integrazioa gure Irizar autokarren belaunaldiaren prestazioak optimizatzeke baliatu dugu.

- Motorreko konpartimentuetarako sarbidearen hobekuntza, konpontze eta mantentze lanen kostua murrizteko. Gainera, erosotasuna gehitu dugu, zarata eta bibrazioak murriztuta.
- Isurpenak murrizteko dagoen teknologiarik aurreratuena integratu dugu, Europako araudi berriei aurre hartuta.
- Motorraren eta bere osagai guztien efizientzia eta errendimendua hobetu ditugu, erregai kontsumoa %6an murriztea lortuta.
- Power on demand gure teknologiari esker, kontsumoa oraindik gehiago murriztea lortu dugu, osagaien bizitza handituta eta mantentze lanen denbora tarteak ahalik eta gehien luzatuta.
- Guztirako pisua 300 kilo baino gehiago murriztu dugu.
- Pisuen banaketa hobetu dugu eta bidaiari kopurua eta erabilgarritasuna handitu ditugu.
- Irizarrena eskusiboa den sistema bat garatu dugu eta horrek gure modeloek gure bezeroen behar espezifikoetara egokitzea ahalbidetzen digu.
- Ikusmen artifizialean dugun teknologiak radarraren informazioa, kamerak eta GPSa integratzen ditu era adimendunean gidatze prediktiborako. Gidatzea topografiara eta errepidearen egoerara egokitzeke eta martxa aldaketan estrategia adimentsuena aukeratzeko.
- Irizar teknologia darabilgu gidatze adimentsu baterako, seguruagoa, fidagarriagoa, erosoagoa, iraunkorragoa eta errentagarriagoa izateko.
- Mantentze lan prediktiboari aplikatutako Irizar teknologiak, online monitorizazioak eta bezeroari arreta egin eta zerbitzua emateko dugun filosofiak ekarri dute autobus eta autokarren belaunaldi berri honek fidagarritasun maila handienak izatea..
- Azken finean, Irizarren teknologia adimendunari esker Kostu Operatibo Osoa %6 baino gehiago murriztu dugu.

Irizar virtual cockpit

Autokarretan sartutako beste berrikuntzetako bat da Irizarren erloju koadro birtuala. Koadro horrek funtzio berritzaileak eskaintzen ditu, maila teknologikoan nahiz kalitatekoan. 12,32"-ko bereizmen handiko pantailak koloreko diseinua dauka, dinamikoa eta intuitiboa, eta informazioa modu osotuan eta moldagarrian erakusten du, unean uneko premietara egokituta.

Irizar virtual cockpitak koloreko diseinu erakargarrian aurkezten du informazio guztia, pantailan elementu finkoak eta elementu dinamikoak erakutsita, azken hauek erdiko leihoan, gidariak unean-unean eskatzen duen informazioaren arabera. Bolante multifuntzio plusaren bidez kontrolatuta, bolantearen etengailuak sistemaren menuetatik zehar nabigatzeko erabiltzen dira.

Irizarren apustu teknologiko berri honi esker, gidariak interakzioan jardun dezake ibilgailuarekin, eta eroso eta seguru gidatzeko behar duen informazio guztia etengabe eta oso azkar eskura dezake.

IRIZAR Marka estrategia, teknologia eta iraunkortasuna

Teknologian, iraunkortasunean eta bezeroenganako gertutasunean oinarrituz azken urteetan Irizar markak hedatu duen estrategia oso emankorra izaten ari da, eta ugari dira bezeroei, bidaiariei eta gizarteari egindako balio ekarpenak

Zerbitzuaren sareak hedapen fasean jarraitzen du, eta, gaur egun, autokarrak dabiltzan leku guztietan posible da Irizar tailer homologatu eta garantiako bat aurkitzea.

Irizar zerbitzuak soluzio pertsonalizatuak ematen ditu, onena eskaintzeko diseinatutako eta sortutako soluzioak: (finantziazioa, konponketa eta mantentze lanetarako kontratuak eta erabilitako zure ibilgailua jasotzea). Erreferentziazko balioa da oraindik ere konponketa zerbitzu osoa, prest jartzea eta erabateko bermea duen mantentze lana edukitzea, eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan.

Helpdeskak ditugu Europako herrialde bakoitzean eta beste nagusi bat, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan zerbitzua ematen duena.

Euro 6 motorrak baino ez dira eskaintzen, zeinak azken belaunaldiko gasolioarekin ibil daitezkeen (10 ppm-ko sufre edukia) ed HVOarekin (landare jatorriko erregai hidrogenatuak).

TCO oso lehiakorra, CO2 isurpen tasa txikiagoak

Operadoreak aurre egin beharreko kosturik handiena erregaiarena dela jakinik, Irizarrek ahalegin handia egin du kontsumoak murrizteko. Autokarren belaunaldi berriak TCOrik (erosketa kostu totala) txikiena eskaintzen du, eta horren funtsezko elementuak dira: erregai kontsumorik txikiena, olio eta iragazkiak aldatzeko denbora tarte luzeak (150.000 km-ra artekoak), partikulen iragazkia bisortze automatikoarekin eta 700.000 km egin arte mantentze lanik egin beharrik gabe, ordezko piezen prezio oso lehiakorra eta zerbitzu gune ugari Europa osoan.

Autokarrei teknologiarik aurreratuena jarri ahal diegu kostuen eta eraginkortasunaren jarraipen zorrotza egiteko, enpresek errazago eduki dezaten beren flota bakoitzaren errendimendua eta errentagarritasuna optimizatzea.

Teknologia adimenduna.

Bezeroei eta gizarteari balio erantsi handia ematen diegu abangoardiako produktu eta zerbitzuen bitartez, izan ere, produktu eta zerbitzu horietan Taldeko enpresa guztien ezagutzatik sortzen diren soluzio teknologiko aitzindari ugari txertatzen

dira. Teknologia horiek oraingo eta geroko erronka handiei erantzuteko pentsatuta daude. Teknologia adimendunak soluzio errentagarriak eta abanguardiak eskaintzea ahalbidetzen du, txertatutako sistemak etengabe eguneratuz eta ibilgailu bakoitzaren bizitza erabilgarria ahalik eta gehien baliatzeko erronkari era efikazean erantzunez, horrela, bere aktiboen balioa optimizatuz.

Laguntza eta aholkularitza prozesu osoan zehar

Irizarrek bezeroei lagun egiten die eta aholkularitza ematen die hurbiletik, eta horrek ibilgailuaren fidagarritasuna eta erabilgarritasuna optimizatzea dakar. Gainera, kudeaketa elektronikoa integratzea eta Irizar konektibitatea sartzen ditu, bai eta flotak kudeatzeko eta telediagnostikorako soluzioak ere, kontsumoak eta isurpenak nabarmen murrizten dituztenak.

Irizarren indarren artean bat, diseinuaren ikusgarritasuna da, zeina kontsumoa optimizatzen duen eta jabeen prestigioa ematen dien aerodinamika baten zerbitzura dagoen. Era berean, sekulako erositutasuna eskaintzen diogu gidariari, gidari eta bidaiariari, esperientzia ahaztezina bermatzeko.

Irizarren beste oinarri bat merkatuari eta operadoreei mugarik gabeko pertsonalizazioa eskaintzean datza, eta hori, zalantzarik gabe, alderdi bereizgarria da.

Azken batean, Irizar prest dago gaur egungo eta etorkizuneko bidaiarien garraioaren beharrei erantzuteko, zerbitzuei eta mugikortasun iraunkorrari dagokienez.